



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko maiatzaren 5a

31 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena. Atzera bidalitako Foru Lege proposamena (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Hots-kutsaduratik begiratzeko Lege-aurreproiektuari buruzko galdera. Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (3. or.).

—Hondakinen gaineko oinarrizko Legearen aurreproiektuari buruzko galdera. Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (4. or.).

—LOGSEren garapenaren baitan, B mailako irakasleak A mailara iristeari buruzko galdera. Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak aurkeztua (5. or.).

—Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruzko galdera. Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (6. or.).

—Beste elkarte batzuetako pertsonen arreta egiteko Insaludekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera. Fermín Cíaurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak aurkeztua (7. or.).

—Nafarroan dauden enpresen jarduerak sor dezakeen ingurugiro-enderkatzeari aurre hartzeko laguntzak emateari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko administrari lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa. Onartuen zerrenda (22. or.).

B Saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duena

ATZERA BIDALITAKO FORU LEGE PROPOSAMENA

Nafarroako Parlamentuak, 1997ko apirilaren 24an egindako Osoko Bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak, biltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoaren babesean, 1997ko apirilaren 22ko izkribuaren bidez, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena atzera bidali duela jakinarazi du. Hori horrela, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Etxebizitza arloko jarduketa babesgarriak finantzatzeko sistema eta motak arautzen dituen abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena atzera bidali dela jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñea, 1997ko apirilaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Saila:
GALDERAK

Hots-kutsaduratik begiratzeko Lege-aurreproiektuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hots-kutsaduratik begiratzeko lege-aurreproiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko apirilaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro Ministerioak hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektua egin du. Hots-kutsadurako egoerei aurrea hartu, haiek begiratu eta zuzentzea du helburu, eta baita kutsadura bestelako hartzaileengana ez heltzea ere, herritarrak eta ingurugiroa zarataren aurka behar bezala babesteko.

Zarata ateratzen duen edozein jarduketa publiko zein pribaturi eragiten dio aurreproiektuak, eta ondorioz, gizarte eta ekonomi alor zabalak ukitzen ditu eta baita Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateek gai horiei buruz dituzten eskumenak ere.

Hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektua dela eta, hurrengo galderei erantzuna ematea eskatzen dut:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Ingurugiro Ministerioaren aipatu lege-aurreproiektuaren berri? Baiezkoan, noiztik?

2.- Kontsulta egin al zaio Nafarroako Gobernuari aurreproiektua egiteko garaian? Noiz aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak, halakorik egin badu, bere iruzkinak? Zeintzuk izan dira?

3.- Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektuari? Beharrezkotzat jotzen al du onestea?

4.- Hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko zer araubide dago indarrean Nafarroan? Nafarroako Gobernuak uste al du aipatu aurreproiektuak xedatu dituenek Nafarroak ingurugiro eta hirigintza gaietan dituen eskumenak errespetatzen dituztela?

5.- Nafarroako Gobernuak iruzkinik egin al dio Ingurugiro Ministerioari gure eskumenak direla eta? Aurreproiektu honek nola eragiten dio Nafarroako aurautegiari eta Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek hots-kutsadura egoerei aurrea hartu, haiek begiratu eta zuzentzeko burutzen dituzten jarduketei?

6.- Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen al du zaratari ingurugiro eta osasun aldetik aurre hartzeari buruzko Foru Legea egitea Nafarroan, Estatuko oinarritzko legedia Foru Komunitatean garatzeko? Noizko? Indarrean dauden zer foru lege ukituko lirateke? Etxebizitzen, bulegoen, lantegien, eta abarren barruan zaratari aurrea hartzeari buruzko eraikuntza arau eta ordenantzei eragingo lieke aipatu Foru Legeak?

7.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du zarataren ondorioz kutsadura sor dezaketen jarduketan katalogoa egitea, hots-kutsadura zaintzeko sistema eratzea eta hots-kutsadura gutxitzeko foru plana egitea, aipatzen ari garen lege-aurreproiektuak dioen bezala?

8.- Nafarroako Gobernuak sustatuko al ditu hirigintza-planeamendurako lotesleak izango diren hots-harmenerako guneak? Nafarroako Gobernuak esperientziarik egin al du horri buruz? Baiezkoan, zer garapen eta balorazio mailekin?

9.- Nola uztartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak hots-kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektuak ezarritakoak eta indarrean den jarduera sailkatuei buruzko Foru Legeak (1989) dioena, aurreko administrazio-baimenei buruz, hots-ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatzei buruz eta arau-hauste eta zehapen-araubideari buruz? Foru legedi horrek legegintza-aldaketa beharko al du? Zer ildotik?

10.- Zer irizten die Nafarroako Gobernuak gaur egunera arte egin izan ahal diren zarata-mapei, aipatu aurreproiektuak ere aurreikusten baititu? Nafarroako zer eskualdetan egin dira mapok eta zer ondorio atera da?

11.- Nafarroako Gobernuak erabilgarri irizten al die Ingurugiro Ministerioak egin duen hots-

kutsaduratik begiratzeari buruzko lege-aurreproiektuak dakartzan hots-babes bereziko guneei, egoera bereziko guneei edo berez sortzen diren zaratak babesteko gune isilei? Nafarroan ba al da antzeko esperientziarik?

12.- Nola eragin diezaioke Ingurugiro Ministerioaren lege aurreproiektuaren onarpenak Nafarroako toki entitateen hirigintza-planeamenduari?

13.- Ingurugiro Ministerioa dela eta, zer jarduketak aurreikusi du Nafarroako Gobernuak egun indarrean diren arauak gure Komunitateak gaiotan dituen eskumenen ikuspuntutik egokitzeko?

Iruñean, 1997ko apirilaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Hondakinen gaineko oinarrizko Legearen aurreproiektuari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 28an egindako bilkuran, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Hondakinen gaineko oinarrizko Legearen aurreproiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko apirilaren 29a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ingurugiro Ministerioak hondakinei buruzko lege oinarrizkoaren aurreproiektua egin du, hondakinak ekoizteari aurrea hartu eta haien berrirerabiltzea bultzatzeko, eta baita hondakin ekoizpenaren, birziklaiaren eta hondakinei balioa emateko bestelako eren oinarrizko araubide juridikoa ezartzeko, haien ezabapena gutxitu edo ekiditeko.

Aipatu aurreproiektuak Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateek ingurugiro gaietan eta

gainerakoetan (Foru Ogasuna, eta abar) dituzten eskumenak ukitzen ditu.

Ingurugiro Ministerioak prestatu duen hondakinei buruzko lege oinarrizkoaren aurreproiektua dela eta, hurrengo galderei erantzuna ematea eskatzen dut:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Ingurugiro Ministerioaren aipatu lege-aurreproiektuaren berri? Baiezkoan, noiztik?

2.- Kontsulta egin al zaio Nafarroako Gobernuari aurreproiektua egiteko garaian? Noiz aurkeztu ditu Nafarroako Gobernuak, halakorik egin badu, bere iruzkinak? Zeintzuk izan dira?

3.- Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak hondakinei buruzko lege oinarrizkoaren aurreproiektuari? Beharrezkotzat jotzen al du onestea?

4.- Hondakinei buruzko lege oinarrizkoaren aurreproiektuak ukitzen dituen gaiei buruzko zer araubide dago indarrean Nafarroan? Nafarroako Gobernuak uste al du aipatu aurreproiektuak xedatu dituenek Nafarroak ingurugiro eta ekologi gaietan dituen eskumenak errespetatzen dituztela?

5.- Nafarroako Gobernuak iruzkinik egin al dio Ingurugiro Ministerioari gure eskumenak direla eta? Aurreproiektu honek nola eragiten dio Nafarroako aurategiari eta Nafarroako Gobernuak eta toki entitateek hiri hondakin solido, geldo, sanita-

rio edo arriskugarriak planifikatu eta kudeatzeko burutzen dituzten jarduketei? Hondakinei buruzko lege oinarritzkoaren aurreproiektuak nola eragiten die Nafarroako Gobernuak lurzoru kutsatuak bere oneratzeko sustatzen dituen jarduketei?

6.- Nafarroako Gobernuak beharrezkotzat jotzen al du hondakinei buruzko foru legea egitea Foru Komunitatearentzako, Estatuko oinarritzko legedia Nafarroan garatzeko? Zer epetan? Indarrean dauden zer foru lege ukituko lirateke?

7.- Zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak "hondakinak sortu edo haien arriskua mugatzeko eskueran diren hobekuntza teknikoak aplikatzeko", aipatu lege proiektuko artikuluek dituzten arabera?

8.- Nafarroako Gobernuak egoki irizten al dio hondakin jakin batzuen kudeaketa bere gain bakarrik hartzeari? Zer eskarmentu dago beste autonomi elkarte batzuetan? Hondakin jakin batzuetarako lege bereziak egiteko asmoa al du Nafarroako Gobernuak, hala nola erabilitako olio, pila, eta abarrentzako, lege horietatik Nafarroako Gobernuak oraintsu sortu duen hondakinen enpresa publikoaren jarduna eta garapena bultzatuz?

9.- Hondakinei buruzko lege oinarritzkoaren aurreproiektuko 12. artikulua arabera: "autonomi elkarteei debekatu egiten zaie Estatuko lurraldean, lurralde hartan kokatutako zentroetan eta

haien baimenduta, ekoiztu den edozein motako hondakinik hartzeari uko egitea". Nafarroako Gobernuak egokitzen al du aipatu artikulua idazteko modua? Onartzen baldin bada, zer ondorio izan dezake artikulua horren aplikazioak Nafarroan?

10.- Estatu mailako hondakinen ingurugiro-fondoa sortzea eta aipatu aurreproiektuak Nafarroaren eta Estatuaren arteko harreman ekonomikotarako ezarri duen sistema, bat al datoz Nafarroako eskumen sistemarekin eta Hitzarmen Ekonomikoarekin?

11.- Lege aurreproiektuak eragiten al die gure Komunitateko toki entitateen eskumenei? Nola?

12.- Nafarroako Gobernuak egoki irizten al dio deuseztutako hondakinen gaineko zerga ezartzeari, lehen aipatu dugun hondakinen ingurugiro-fondoa finantzatzeko? Nola ezarriko da aipatu zerga Nafarroan? Nork kudeatuko du?

13.- Nafarroako Foru Ogasunaren eta Estatuaren arteko kudeaketarik egin al da, aipatu zerga ezartzeak Nafarroan eragin eta erasango dituenak aurreikusteko? Zer kudeaketa egin da, zehazki? Nortzuk egin dituzte?

Iruñean, 1997ko apirilaren 21a

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

LOGSEren garapenaren baitan, B mailako irakasleak A mailara iristeari buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak LOGSEren garapenaren baitan, B mailako irakasleak A mailara iristeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Anguloek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Badirudi laster argitaratuko dela B mailako ikasle funtzionarioak A mailara iristea arautzeko dekretua, LOGSE garatzeko prozeduraren baitan.

Uste izatekoa da Hezkuntza Departamentuak bere esku izango duela plangintza bat, maisu-maistra eta funtzionario ez diren kontratatutako irakasleei (interinoei) buruz, aipatu langileen egoera badaezpadakoa delako.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Zenbat maisu-maistra eta lizentziatu kontratupeko (interino) ditu Hezkuntza Departamentuak lehen hezkuntzan, DBHn eta BBB-UBIn, maila eta espezialitate bakoitzean?

2.- Departamentuak aurreikusi al du enplegu-eskaintza publikoa egitea lehen hezkuntzan, DBHn eta BBB-UBIn (edo etorkizuneko batxilergoan) irakasle postuak betetzeko? Baiezkoan, zehatz bitez mailaka, espezialitateka eta eskaintza-egutegiaren arabera.

Iruñean, 1997ko apirilaren 17a

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin duen itunari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Gobernuak Klinika Unibertsitarioarekin egindako itunari buruzko galdera egin nuen arestian, baita erantzuna jaso ere, baina eskatutako datuei buruzko zehaztasun gehiago nahi dut. Beraz, hauxe planteatzen dut:

– Zer prezio kobratu zaio Nafarroako Gobernuari klinika horretan eguneko eta oheko?

– Hemodialisi, T.A.K., E.M.N. eta litotriziari buruzko datu globalei buruz:

a) saio bakoitzaren prezioa.

b) Aipatu ospitalean tratatzeko irizpideak (urte bakoitzarendako zehatz bitez, ezberdinak baldin badira).

– Forfaitak eta helburuak zertan dautzan azaltzea, eta baita urtero egin den unitateko gastua zehaztu ere.

– Botikei buruz: motak eta kostuak zehaztea eta tratamenduaren justifikazioa.

– Protesiei buruz: zeintzuk eta horietariko bakoitzaren prezioa, eta baita fakturatu dituzten zentro edo lantegiak ere.

– Bestelakoak kontzeptuarekin agertzen den kontusaila argitzea, urtero egindako gastua zehaztuz eta justifikatuz

Iruñean, 1997ko apirilaren 22a

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Beste elkarte batzuetako pertsonen arreta egiteko Insaludekin izenpeturiko hitzarmenei buruzko galdera

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 28an egindako bilkuran, Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak beste elkarte batzuetako pertsonen arreta egiteko Insaludekin izenpeturiko hitzarmenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko apirilaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Fermín Ciáurriz Gómezek, Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Badirudi Nafarroa hurbileko eta ez hain hurbileko beste komunitate batzuetako gaisoak erakartzen dituen komunitatea dela. Litekeena da gure

osasun egoera beste batzuen baino erakargarriagoa izatea.

Galdera honen xedea da jakitea ea gure Foru Administrazioak "berreskuratzen" ote duen gaisoen arreta egiteak dakarren kostua.

– Insaludekiko hitzarmenak, beste komunitateko pertsonen arreta egiteko.

– Azken bost urteotako kostu banakaturia.

– Azken bost urteotan arreta egin zaien gaisoen kopurua, eta baita zer zentrotan egon diren ere.

– Nafarroako ospitale sarekoetatik at, besteren bat sartu al da? Zeintzuk?

– Aurrekoek Administrazioari egotzi dizkieten kostuak baldin badira, zeintzuk eta zer kontzepturen arabera?

– Nafarroako Administrazioak ba al du arreta horren berri? Nola?

Iruñean, 1997ko apirilaren 22a

Foru Parlamentaria: Fermín Ciáurriz Gómez

Nafarroan dauden enpresen jarduerak sor dezakeen ingurugiro-endeakatzeari aurre hartzeko laguntzak emateari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroan dauden enpresen jarduerak sor dezakeen ingurugiro-endeakatzeari aurre hartzeko laguntzak emateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko otsailaren 3ko 7 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak, Ramón Bultó Llevat jaunak, "Socialistas

del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko kidea den José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroan dauden enpresen jarduerak sor dezakeen ingurugiro-endeakatzeari aurre hartzeko laguntzak emateari buruzko galdera dela eta, zeinarentzat idatzizko erantzuna eskatzen baitzuen, ondorengo erantzun hau eman nahi du:

1.- Laguntza horiek finantzatzen dituen aurrekontu-lerroari dagokionez, eskatzen da: atxikiak dauden lerroaren zenbakia, kontusailaren izena, programa eta proiektua, haien sailkapen organiko, ekonomiko eta funtzionala, eta lerroak orokorrean eskura eduki zuen kreditua.

Lerroaren zenbakia:
bi lerro dira 81110/4709/5424-lerroa:29570-0
81100/4709/2/5424-lerroa: 29580-7

Kontusailaren izena:
bi dira: – Lehiakortasuna hobetzeko diru-
laguntzak (kalitatea eta diseinua)
– Lehiakortasuna hobetzeko diru-
laguntzak (kalitatea eta diseinua)
FEDER programak

Programa: Industri jarduera sustatzea

Proiektua: Berrikuntza teknologikoa sustatu

Sailkapenak: Eman direnak

Hasierako kreditua: 202.000.000 pezeta, bi lerro-
ak aintzat harturik.

2.- Aurreko atalean aipatu den kreditu eskura-
garririk zenbat diru erabili den ingurugiro-ende-
katzea saihesteko.

Ikus 5. galderari ematen zaion erantzuna.

3.- Goranzko aldaketak, bai Foru Aginduak eta
Ebazpenak argitaraturik, bai aurrekontutik kanpo-
ko diru-ekarpenen edo finantzaketaren bidez gau-
zatuak, 1996ko ekitaldian eskura egon den zen-
batekoa egin arte.

Ezta bat ere, 7. galderari ematen zaion eran-
tzunean aipatzen dena salbu.

4.- 1996ko aurrekontuan guztira eskura zego-
en zenbatekoaren sailkapena, kreditu eskuraga-
rria edo 1995ean konprometituriko kreditua den
aldetik.

1995 urtean zehar harturiko konpromezua:
148.640.961 pezeta, 1. eras-
kinean erakus-
ten den bezala
banakatua.

Kreditu erabilg.: 53.359.039 pezeta

Guztira: 202.000.000 pezeta

5.- Enpresen jarduerak berak ingurugiroan era-
giniko endekatzea saihesteko emaniko dirulagun-
tzen zerrenda. Esan bedi: noiz eskatu zuen, zer
enpresa, entitate edo erakundek eskatu zuen,
dirulaguntzen xede izan diren jarduketaren deskrip-
zio laburra, eta haien zenbatekoa.

Eraskinaren datuen arabera, ondorengo hauek
izan dira:

- Enpresa: P.R.A.O.M.S.A.
Herria: Lizarra
Eskaera-eguna: 1996ko abuztuaren 26a
Jarduketaren titulua: ingurugiro-kudeaketara-
ko sistema ezartzea
Emandako dirulaguntza: 591.875 pezeta
Oharra: eraskineko 11. orria ikusi.

- Enpresa: Volkswagen Navarra, S.A.
Herria: Iruñea
Eskaera-eguna: 1996ko uztailaren 29a
Jarduketaren titulua: Ekoauditoria
Emandako dirulaguntza: 1.500.000 pezeta
Oharra: eraskineko 15. orria ikusi

6.- 1997 eta 1998 urteetarako harturiko gastu-
konpromezua gaurregun bideraturik dauden edo
aurreko urteetan bideratu diren espedienteekiko.

1997 urterako konpromezua: 179.069.541
pezeta, 7. galderari ematen zaion erantzunean
aipatzen denaren arabera.

Ondorengo ekitaldietarako ez dago konprome-
zurik.

7.- Galdera honetan aipatzen den Foru Agin-
duari dagokionez, itauntzen da zenbat diru eman
zaien guztira Nafarroako enpresei, jardueren eta
haren I. eta II. eraskinetan aipaturiko lanen arabe-
ra sailkatuak. Adieraz bedi espreski: noiz eskatu
zuen, zer enpresa, entitate edo erakundek eskatu
zuen, dirulaguntzen xede izan diren jarduketaren
deskripzio laburra, eta haien zenbatekoa.

1996 urtean zehar eman diren dirulaguntzen
zerrenda eraskinean aipatzen dena da, eta
254.305.827 pezeta jotzen du guztira. Urteetan
banakaturik, honako hau daukagu:

1996 urtea:	75.236.286 pezeta
1997 urtea:	<u>179.069.541 pezeta</u>
Guztira:	254.305.541 pezeta

1996 urtean, hasieran erabilgarri zegoenak, 4.
galderari emandako erantzunean ikus daitekeen-
ez, 53.359.039 pezeta jotzen zuen, baina azke-
nik erabili ahal izan zenak 75.236.286 pezeta jo-
zuen. Honen arrazoia izan zen bideratu ziren
hainbat espediente ez zirela bete, eta horren ara-
bera askatu ahal izan zen hartu zen konprome-
zuaren zati bat.

Kontzesiorik gehienak aipatu deialdiko I. eras-
kineko jarduerari eman zaizkie, eta ondoren
zerrendatzen direnak II. eraskineko jarduerari:

Enpresa	Eskaria	Jarduketa	Dirulaguntza	Orria
Asociación de la Industria Navarra	96-8-30	Lehiakortasuna zabaltzeko plana	9.050.000	2
Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara	96-8-9	Autodiagnostiko lagunduriko programa	1.750.000	3
Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara	96-8-9	Kontserba makineta alorreko lankidetzak	2.450.000	3
CEIN, S.A.	96-7-5	Nafarroako enpresa ekimenak azkartzeko plana	6.595.325	3
Institutu Zientifiko eta Teknologikoa	96-8-28	Eraikuntza alorreko kalitatea zabaltzeko programa	443.000	9

Iruñean, 1997ko otsailaren 25a

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
A.I.C.V.-LABORATORIO DEL EBRO	96-ABU-29	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	733.000
	96-ABU-29	KALIBRAZIO PLANA	477.500
			1.210.500
AGRALCO, SOCIEDAD COOPERATIVA	96-ABU-01	AZIDO TARTARIKOAK EKOIZTEKO TEKNOLOGIAREN TRANSFERENTZIA (BOTIKA KALITATEA)	2.940.000
			2.940.000
ALABASTROS ANIRCORA SL	96-ABU-28	ALABASTROZKO LANPAREN DISEINUA ETA PROTOTIPOAK	868.750
			868.750
ALAMBRES PAMPLONA S.L.	96-ABU-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	680.000
			680.000
ALBIA GAS Y AGUA S.L.	96-ABU-30	KALITATE MAILAREN DIAGNOSTIKOA	160.000
			160.000
ALCER S.L.	96-ABU-29	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.150.000
			1.150.000
ALFREDO PEREDA ZATON	96-UZT-04	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	624.000
			624.000
ALMADIA S.A.L.	96-UZT-05	IRUDI DISEINUA, KATALOGOA	696.750
	96-UZT-05	PROGRAMA INFORMATIKOA GARATZEA	200.000
	96-UZT-05	PRODUKTUAREN DISEINUA (AUTZA)	450.000
			1.346.750
ALUMINIOS ALZANIA S.A.	96-ABU-01	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	559.000
			559.000
AMIMET	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	720.000
			720.000
AÑURI S.A.	96-ABU-09	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.675.000
			1.675.000
AP AMORTIGUADORES SA	96-ABU-08	KALITATE SISTEMA EZARTZEA AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	325.000
			325.000

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA		
APERITIVOS Y EXTRUSIONADOS SA	96-ABU-14	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	875.000		
	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEKO KUDEAKETA PROZESU INTEGRALAREN AZTERKETA ANALITIKOA	64.500		
			939.500		
ARGAPER S.L.	96-ABU-09	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	644.000		
			644.000		
ARTICULOS FERRETERIA S.A.	96-ABU-28	BILTEGIKO LOGISTIKA HOBETZEA	376.125		
	96-ABU-28	EDI SISTEMA EZARTZEA	255.375		
			631.500		
ASOC. ALIMENTOS ARTESANOS DE NA.	96-ABU-22	EKOIZPENAREN PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KONTROLA	1.406.500		
			1.406.500		
ASOCIACION INDUSTRIA NAVARRA	96-ABU-30	LEHIAKORTASUNA ZABALTZEKO 1996KO PLANA	9.050.000		
			9.050.000		
ASPACE C.E.E.	96-ABU-14	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	400.000		
			400.000		
AUTOMATIZACIONES LAMUCE SL	96-ABU-13	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	810.800		
			810.800		
AUXILIAR DE LA CONSTRUCCION S.L.	96-ABU-05	EKOIZPENAREN PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KONTROLA	223.750		
			223.750		
AUXILIARES DE GALVANOTECNIA S.L.	96-EKA-06	BARNE ANTOLAKETA ETA EKOIZPENA HOBETZEA	1.848.000		
			1.848.000		
AZKOYEN HOSTELERIA SA	96-ABU-01	PRODUKTUAK EGIAZTATZEA. CE, UL, NSF MARKAK	2.046.250		
			2.046.250		
AZKOYEN INDUSTRIAL SA	96-ABU-02	EKOIZPEN SISTEMAREN ARRAZIONALIZATZEA. EKOIZPEN FLUXUA ETA KUDEAKETA EREDUA	1.568.750		
			96-ABU-02	PINTURA INSTALAZIOA HOBETZEA	1.132.500
			96-ABU-02	PRODUKTUAREN EGITURA	1.262.656
				ARRAZIONALIZATZEA	
			3.963.906		
BACAICOA OROZ DANIEL Y JESUS SRC	96-ABU-29	MERKATARITZA KUDEAKETAREN PLANA	68.750		
			68.750		
BARON DE LEY SA	96-ABU-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	340.359		
			340.359		
BELISA S.A.	96-ABU-26	ARPCPC GARATZEA	200.000		
			200.000		
BEPLAST S.A.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.745.000		
			1.745.000		
BERTAKO S.A	96-UZT-15	TRESNERIA ALDATZEKO AZTERKETA	280.000		
	96-UZT-30	AUDITORIA, ENPRESA ERREGISTROA	881.192		
			1.161.192		
BILDU LAN SCI	96-ABU-29	GPAO SISTEMA EZARTZEA	1.050.000		
			1.050.000		

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
BOBINADOS OSES, S.L.	96-EKA-05	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	750.000
	96-EKA-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	600.000
			<u>1.350.000</u>
BODEGA DE SARRIA S.A.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA	950.000
	96-ABU-30	ENPRESA ERREGISTROA MARKA BERRIEN ETIKETAK	139.738
			<u>1.089.738</u>
BODEGAS BEAMONTE S.A.	96-UZT-15	KORPORAZIO IRUDIAREN DISEINUA	2.178.750
			<u>2.178.750</u>
BODEGAS IRACHE S.A.	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.120.000
			<u>1.120.000</u>
BODEGAS ONDARRE, S.A.	96-UZT-04	CAVA BRUT ETA BRUT NATURE ETIKETAK BERRITZEA	500.000
			<u>500.000</u>
BOMBONES TORRES S.L.	96-APR-26	KAIKUBOMBON DISEINUA	219.851
			<u>219.851</u>
BRAKELIK S.A.L.	96-EKA-18	PRODUKTUAREN EGIAZTAPENA	438.200
			<u>438.200</u>
CALTU, S.L.	96-ABU-26	EKOIZPEN LERROAK BIRRANTOLATZEA	950.000
	96-ABU-26	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AUREA HARTZEARI BURUZKOA)	862.500
			<u>1.812.500</u>
NAFARROAKO MERK. ETA IND. GANB.	96-ABU-09	ADA PROGRAMA (AUTODIAGNOSTIKO LAGUNDUA)	1.750.000
	96-ABU-09	KONTSERBA MAKINEN ALORREKO LANKIDETZA	2.450.000
			<u>4.200.000</u>
CARROCERIAS EGA S.A.	96-MAI-17	EKOIZPENAREN AZTERKETA ETA EKOIZKORTASUNA HOBETZEA	1.787.500
			<u>1.787.500</u>
CEIN S.A.	96-UZT-05	NAFARROAKO ENPRESA EKINBIDEAK PIZTEKO PLANA	6.595.325
			<u>6.595.325</u>
COMERCIAL DE ENVASES DE NAVARRA	96-UZT-29	AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	595.000
			<u>595.000</u>
COMERCIAL DE HOJALATA Y METALES	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	560.000
			<u>560.000</u>
COMERCIAL EUROPEA DE PORCELANAS	96-ABU-26	PLANGINTZA ETA MANTENIMENDU SISTEMAK BERRIRO DISEINATZEA	1.749.187
			<u>1.749.187</u>
COMPUESTOS Y GRANZAS SA	96-UZT-16	KALITATE AUDITORIAK.PRESTAKUNTZA	294.000
			<u>294.000</u>
CONSERVAS ALLO S.L.	96-EKA-07	ANTOLAKETAREN DIAGNOSTIKOA	300.000
			<u>300.000</u>
CONSERVAS ANKO S.L.	96-ABU-22	ANKO MARKA BIRDISEINATZEA ETA BENITO PRAT BIGARREN MARKAREN DISEINUA	228.000
			<u>228.000</u>
CONSERVAS ARTESANAS ROSARA SL	96-EKA-21	EKOIZPENAREN ANTOLAKETA	600.000
			<u>600.000</u>

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
CONSERVAS BARCOS S.A.	96-ABU-30	KORPORAZIO IRUDIAREN DISEINUA ETA ETIKETA ETA ONTZIEI APLIKATZEA	500.000 <hr/> 500.000
CONSERVAS HIJOS MANUEL SCHEZ. BASARTE SA	96-ABU-12	ANTOLAKUNTZAREN ALDAKETA	500.000 <hr/> 500.000
CONSTRUCCIONES ABAIGAR S.A.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.150.000 <hr/> 1.150.000
CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI, S.L.	96-ABU-30	AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	460.625 <hr/> 460.625
CONSTRUCCIONES MECANICAS RAFAL S.L.	96-ABU-30	PRODUKTUA DISEINATZEKO ERABILI BALIABIDE INFORMATIKOAK HOBETZEA	50.000 <hr/> 50.000
CONSTRUCCIONES METALICAS COMANSA SA	96-ABU-29	KALIBRAZIO PLANA	255.000 <hr/> 255.000
CONSTRUCCIONES SAMANIEGO S.L.	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	2.050.675 <hr/> 2.050.675
CONSTRUCCIONES SAN MARTIN S.A.	96-EKA-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	705.118 <hr/> 705.118
CONTROL DE PORCIONES, S.A.	96-MAI-28	EKOIZPENA HOBETZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA	250.000 <hr/> 250.000
COTALSA SA	96-ABU-28	PRODUKTUA ETA KATALOGOA DISEINATZEA	1.150.000 <hr/> 1.150.000
CSI TRANSFORMADOS S.A.	96-UZT-04	IKUSMEN ARTIFIZIALEZKO KONTROL AUTOMATIKOAREN BIDERAGARRITASUN AZTERKETA	750.000 <hr/> 750.000
CHATARRAS ARAMENDIA S.L.	96-ABU-26	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	555.000 <hr/> 555.000
DEFONTAINE IBERICA SA	96-EKA-13	AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	505.625 <hr/> 505.625
DELPHI UNICABLES S.A.	96-ABU-30	HELBURUKAKO KUDEAKETA SISTEMA EZARTZEA	1.800.000 <hr/> 1.800.000
DISPRODEN, S.L.	96-ABU-23	PRODUKTU BERRIEN KATALOGOA	59.750 <hr/> 59.750
EDUARDO ALBENIZ SA	96-UZT-31	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	212.000 <hr/> 212.000
EGACOOB, S. COOP.	96-ABU-28	AUTOKLABEAK ESTERILIZATZEKO PROZESUA INFORMATIZATZEA	128.666 <hr/> 128.666
EGOKI SL	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	522.500 <hr/> 522.500

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
EGUIPLAS S.L.	96-UZT-04	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.700.000
			1.700.000
EGUZKIA NHK SA	96-MAI-23	AUDITORIA TEKNIKOA EKOIZKORTASUNA HOBETZEA	175.000
			175.000
EISENOR SA	96-APR-30	MERKATARITZA KUDEAKETA ETA KOSTUEN KUDEAKETA EZARTZEA	468.750
			468.750
ELECTRIFICACIONES SAN CRISTOBAL S.L.	96-EKA-04	KUDEAKETA ARRAZIONALIZATZEA ETA EKOIZPENA ANTOLATZEA	1.485.000
			1.485.000
ELECTRONICA FALCON S.A.	96-EKA-05 96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA KALITATE SISTEMA EZARTZEA	375.000
			420.000
			795.000
EMBALAJES CLAVIJO S.L.	96-UZT-04	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.950.000
			1.950.000
EMBAPOEX S.A.	96-ABU-12	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	720.000
			720.000
EMBEGA S.C.I	96-ABU-28 96-ABU-28 96-ABU-28 96-ABU-28	ANTOLAKETA EREDU BERRIAREN DISEINUA KATALOGO BIRTUALAREN DISEINU ETA GARAPENA TOKI SAREA EZARTZEKO AHOLKULARITZA KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	708.750
			262.500
			140.000
			289.126
			1.400.376
EMBUTIDOS GOIKOA, S.A.	96-ABU-07	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.480.000
			1.480.000
EMOT, S.L.	96-APR-26	AURREKONTU INFORMATIKAREN EZARPENA	367.640
			367.640
ENVASADOS EVA S.A.	96-EKA-17	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	2.175.000
			2.175.000
EQUISALUD S.L.	96-ABU-28	DISEINUA: ETIKETAK,ONTZIAK,LIBURUSKAK,PROSPEKTUAK, LIBURUAK,KONTSULTA FITXAK ETA PUBLIZITATEA	625.000
			625.000
ESCALERAS ARIZONA S.L.	96-UZT-11	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.275.000
			1.275.000
EURO ESTAMPACIONES, S.A.	96-ABU-02 96-ABU-02 96-ABU-02	KALITATE SISTEMA EZARTZEA KALIBRAZIO PLANA AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	399.808
			203.612
			695.000
			1.298.420
EUROVIDRIO SAL	96-ABU-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	600.000
			600.000
EXTINIRUÑA S.L.	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	640.000
			640.000
EXTINTORES MONCAYO SL	96-MAI-07	EKOIZPEN INFORMATIKAREN APLIKAZIOA	1.747.075
			1.747.075

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
FORJAS DE NAVARRA S.L.	96-EKA-26	FORJAKETA BERORAKO MAKINAREN	470.000
	96-ABU-01	BIDERAGARRITASUN TEKNIKOAZTERTZEA FORJAKETA LERROAREN DISEINUA	1.447.767
			1.917.767
FORJAS DE VIANA SA	96-UZT-23	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	2.001.880
			2.001.880
FRENOS ELECTRICOS UNIDOS SA	96-UZT-30	ARMAZOIAREN PISUA, ERRESISTENTZIA ETA ZURRUNTASUNA OPTIMIZATZEA	930.000
			930.000
FRENOS IRUÑA SAL	96-APR-30	ETENGABEKO HOBEKUNTZA. HELTZEKO DENBORA GUTXITZEA	1.992.500
	96-ABU-08	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	2.250.000
	96-ABU-08	APLIKAZIO INFORMATIKOA, KALITATE KONTROLA PLANGINTZA ETA LAN ZELULEN KONTROLA	832.500
			5.075.000
GARAU MAS MALVIDO S.L.	96-EKA-21	PACHO I UNITATE OFTALMOLOGIKOA	407.817
			407.817
GIGANTE VERDE S.A.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	737.500
			737.500
GRAFICAS ESTELLA SA	96-UZT-05	SEGURTASUN PLANA EZARTZEA	587.500
	96-UZT-05	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	650.000
	96-UZT-05	EKOIZKORTASUNA HOBETZEA (EKOIZPEN ESTANDARRAK EGUNERATZEA)	1.800.000
	96-UZT-25	TEKNOLOGIA BERRIAK EZARTZEA (AURREINPRIMAKETA ATALA)	420.000
			3.457.500
GRAFICAS LIZARRA S.L.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	2.770.700
			2.770.700
GUARDIAN NAVARRA S.A.	96-ABU-13	AUDITORIA ENPRESA EGIAGTAGIRIA	364.800
			364.800
HARINERA VASCO NAVARRA S.A.	96-ABU-29	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	951.000
			951.000
HUGUET, S.L.	96-ABU-19	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	575.000
			575.000
HUICI LEIDAN S.A.	96-UZT-23	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	969.600
			969.600
ICER MATERIALES DE FRICCION S.A.	96-ABU-29	TREN-ZAPATEN HOMOLOGAZIOA UIC ARAUEN ARABERA	1.000.000
	96-ABU-29	KORPORAZIO IRUDIAREN, ZABALKUNDEAREN ETA PACKAGINGAREN ELEMENTUEN BIRDISEINUA	148.464
	96-ABU-30	BALAZTA ZAPATA ETA PASTILEN HOMOLOGAZIOA 90 ERREGELAMENDUAREN ARABERA	1.275.000
			2.423.464
IGARTEX SAL	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	575.000
			575.000
INCASA S.A.	96-ABU-01	KALITATE SISTEMA EZARTZEA-AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	505.000
	96-ABU-28	EKOIZPEN SISTEMA INFORMATIKOAREN GARAPENA	1.241.500
			1.746.500

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
INDUSTRIA NAVARRA DE GALVANOTECNIA S.L.	96-ABU-30	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	605.000
			605.000
INDUSTRIA NAVARRA DEL ALUMINIO SA	96-ABU-01	IJEZKETA PLANGINTZA PROIEKTUA	2.613.075
			2.613.075
INDUSTRIAS ABRASIVAS LEY S.L.	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	525.000
			525.000
INDUSTRIAS ADI S.A.	96-UZT-05	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	640.000
			640.000
INDUSTRIAS ALIMENTARIAS DE NAVARRA S.A.	96-MAI-17	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.812.000
	96-ABU-29	INFORMAZIO SISTEMEI BURUZKO PLANA GARATU ETA EZARTZEA	1.650.000
	96-ABU-30	KALIBRAZIO PLANA	650.000
			4.112.000
INDUSTRIAS AUTOPLAS SA	96-ABU-30	AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	160.000
	96-ABU-30	INFORMAZIO SISTEMA INTEGRATUAREN PLANA EZARTZEA	500.000
	96-ABU-30	LABORATEGI FOTOMETRIKOAREN MEKANIZAZIOA	500.000
			1.160.000
INDUSTRIAS BARDI SAL	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.024.000
			1.024.000
INDUSTRIAS BARGA S.L.	96-ABU-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	480.000
			480.000
INDUSTRIAS CARNICAS NAVARRAS SA	96-ABU-01	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	675.000
			675.000
INDUSTRIAS CARSAL SA	96-ABU-01	GPAO SISTEMA EZARTZEA	1.500.000
			1.500.000
INDUSTRIAS DEL RECAMBIO S.L.	96-ABU-29	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.000.000
			1.000.000
INDUSTRIAS ESTEBAN S.A.	96-ABU-30	R-100 DISEINU PROIEKTUA	1.912.500
			1.912.500
INDUSTRIAS GRASAS DE NAVARRA SA	96-ABU-06	AZTERTZAILE MIKROBIOLOGIKO INFORMATIZATUA EZARTZEA	82.000
			82.000
INDUSTRIAS LA MOREA S.A.	96-MAI-29	EKOIZPENAREN PLANGINTZA, ANTOLAKETA ETA KONTROLA. INFORMATIZAZIO INTEGRALARI BURUZKO PLANA	2.178.000
			2.178.000
INDUSTRIAS METALICAS TERU SA	96-EKA-12	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	2.653.500
			2.653.500
INDUSTRIAS PEVI S.A.	96-UZT-04	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.226.450
			1.226.450
INDUSTRIAS SAN ANDRES SA	96-ABU-01	KALITATE SISTEMA EZARTZEA-AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	923.000
	96-ABU-02	MANTENIMENDU KUDEAKETARAKO PRISMA SISTEMA EZARTZEA	300.000
			1.223.000

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
INDUSTRIAS SANLO SA	96-ABU-07	KALITATE SISTEMA EZARTZEA. AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.120.000 <hr/> 1.120.000
INDUSTRIAS Y ABONOS DE NAVARRA, S.A.	96-UZT-30 96-UZT-30 96-ABU-28	KATALOGO OROKORRA AURKEZPEN LIBURUSKA (LODOSAKO LANTEGIA) BIDALKETAK ETA ERRESERBAK KONTROLATZEKO APLIKAZIO INFORMATIKOA (LODOSA)	600.000 355.000 419.534 <hr/> 1.374.534
INES MULLIEZ CORELLA, S.A.	96-ABU-14	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA EGIAZTAGIRIA	1.162.474 <hr/> 1.162.474
INSTITUTO CIENTIFICO Y TECNOLOGICO	96-ABU-28	ERAIKUNTZA ALORREKO KALITATEAREN ZABALPEN SENTIBERATZE ETA INFORMAZIO PROGRAMA	443.000 <hr/> 443.000
JAVIER VIRTO, S.A.	96-UZT-05	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.925.000 <hr/> 1.925.000
JEALSER SA	96-ABU-29	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	720.000 <hr/> 720.000
JOYJA PERALTA S.L.	96-UZT-31	PLANTA BANAKETA BERRIA	340.000 <hr/> 340.000
KOBOL SA	96-ABU-19	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	738.500 <hr/> 738.500
KUZU S.L.	96-EKA-07 96-UZT-04	EKOIZKORTASUNA HOBETZEA, ZARRASTELKERIA GUTXIAGO KALITATE SISTEMA EZARTZEA	201.437 761.600 <hr/> 963.037
LABORAL JIBERSAN S.L.	96-ABU-08	KATALOGOA EGITEA	125.000 <hr/> 125.000
LACTEOS SARALEGUI S.L.	96-ABU-22 96-ABU-22	2. MARKA SORTZEKO PLAN ESTRATEGIKOA KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	626.880 1.440.000 <hr/> 2.066.880
LAZARO TABERNA, S.A.	96-ABU-23	ARRISKUAK ETA PUNTU KRITIKOAK AZTERTZEA	375.000 <hr/> 375.000
LYS ALIMENTACION, S.A.	96-MAI-24 96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA, ISO 9002 EGIAZT. KALIBRAZIO PLANA	1.850.000 498.750 <hr/> 2.348.750
MAGOTEAUX LUZURIAGA SA	96-MAI-29	GALDAKETA TXASIAK GARRAIATZEKO UNITATEEN DISEINUA	3.500.000 <hr/> 3.500.000
MAIER-MGI COUTIER NAVARRA S.L.	96-ABU-30 96-ABU-30	PLANTA BANAKETAREN DISEINUA INFORMAZIO SISTEMEN PLANA	866.250 1.375.000 <hr/> 2.241.250
MANUFACTURAS ALUMINIO PAMPLONA SECTOR AUTOMOCION S. COO	96-ABU-30 96-ABU-30 96-ABU-30	INJEKZIO PLANTAREN ERAGINKORTASUNA ETA EKOIZKORTASUNA HOBETZEA EKOIZPENA-MERKATURATZEA KUDEATZEKO SISTEMEN PLANA EZARTZEA HAGUNEN FEM AZTERKETA.ZEHAZTASUNAK AS7 ALEAZIOAREN NEKEA	1.000.000 121.250 457.550 <hr/> 1.578.800

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
MANUFACTURAS NICOLAS S.A.	96-ABU-26	AMINISTRAZIO ARLOAREN ANTOLAMENDU GARAPENA	993.750
	96-ABU-26	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AUREA HARTZEARI BURUZKOA)	1.068.750
			<u>2.062.500</u>
MANUFACTURAS PISON, S.L	96-ABU-28	BULEGOKO BESAULKIEN LERRO BERRIA SORTU, DISEINATU ETA KANPAINA ABIARAZTEA	1.250.000
			<u>1.250.000</u>
MARMOLES DEL EBRO SA	96-EKA-11	EGUNGO EGOERARI BKO. AHOLK. ETA HOBEKUNTZA	500.000
	96-EKA-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	300.000
	96-ABU-29	EKOIZPEN LERROAK ANTOLATZEKO ARLOAREN AHOLKULARITZA	856.250
	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AUREA HARTZEARI BURUZKOA)	916.250
			<u>2.572.500</u>
MATERIAL DE INSTALACION EUNEA S.A.	96-MAI-16	BALIOAREN AZTERKETA	500.000
	96-ABU-08	PRODUKTUAREN EGIAZTAPENA	1.625.000
			<u>2.125.000</u>
MECANIZADOS INDUSTRIA AUXILIAR SA	96-ABU-02	RENAULT ETA ROVER URKILAK DISEINATZEKO PROIEKTUAK	1.587.500
			<u>1.587.500</u>
MECANIZADOS MEDRANO S.L.	96-EKA-05	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	650.000
			<u>650.000</u>
MELTON SL	96-ABU-30	PRODUKTUAREN EGIAZTAPENA (HOT-MELT APLIKATZEKO FUSOREA, 89/336/EEE JARRAIBIDEAREN ARABERA)	175.000
			<u>175.000</u>
METALURGICAS ARAQUIL S.L.	96-ABU-29	EKOIZPEN LERROAK HANDITU ETA HOBETZEKO AHOLKULARITZA	593.750
	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AUREA HARTZEARI BURUZKOA)	631.250
			<u>1.225.000</u>
MOLDURAS MUEBLES SALVADOR MARTINEZ S.A.	96-ABU-29	ANTOLAKETA ARLOKO HOBEKUNTZA, EKOIZPEN LERROAK HANDITU ETA HOBETZEAGATIK	818.750
	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AUREA HARTZEARI BURUZKOA)	880.000
			<u>1.698.750</u>
MONASTERIO MODA INFANTIL, S.L.	96-ABU-29	TELEFONOZ SALTZEKO SISTEMA EZARTZEA	600.000
			<u>600.000</u>
MONTAJES ELECTRICOS TUDELANOS S.L.	96-ABU-28	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	2.102.000
			<u>2.102.000</u>
MOVINORD, S.A.	96-ABU-29	MERKATARITZA PROGRAMA INFORMATIKO INTEGRATUA	3.500.000
			<u>3.500.000</u>
MUREBAL IBERICA, S.A.	96-ABU-22	EKOIZPEN SISTEMAREN ANTOLAKETA DISEINU BERRIA	1.103.213
			<u>1.103.213</u>
NAVARRA DE COMPONENTES ELECTRONICOS SA	96-UZT-30	QS-9000 EGIAZTAPENA	493.750
			<u>493.750</u>

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
O.S. FRENOS S.L.	96-ABU-28	AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	480.000 480.000
OCHOA LACAR HERMANOS S.L.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.303.200 1.303.200
OLLOQUI MAZO S.L.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	720.000 720.000
ORDOIZ S.L.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	520.000 520.000
P.R.A.O.M.S.A.	96-ABU-26 96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA INGURUGIRO KUDEAKETA SISTEMA EZARTZEA	591.875 591.875 1.183.750
PAPELES EL CARMEN, S.A.	96-ABU-28 96-ABU-28	IRARMAKINA FLEXOGRAFIKOEN ALDAKETA AZKARRA PARAFINATUGINTZA ARLOKO EKOIZKORTASUNA HOBETZEA	274.250 1.200.000 1.474.250
PAVIMENTOS NAVARRA S.COOP.	96-EKA-21	GUZTIZKO DIAGNOSTIKOA	250.000 250.000
PEDRO LIZARAZU SL	96-ABU-07 96-ABU-07	EKOIZPENA KUDEATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EZARTZEA KALITATE SISTEMA EZARTZEA	509.750 629.600 1.139.350
PEGASAM S.L.	96-EKA-20	AVIÑON ETA GUADIX EREDUEN DISEINUA	205.000 205.000
PERFILES NAVARRA SA	96-ABU-02	KALITATE SISTEMA EZARTZEA-AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	1.560.000 1.560.000
PIENSOS UNZUE SA	96-ABU-02	SISTEMA INFORMATIKO INTEGRATUA EZARTZEA	970.500 970.500
PLASTIEGA SL	96-ABU-29	EKOIZPEN PROZESUA AUTOMATIZATU ETA HOBETZEA	1.931.351 1.931.351
PRECOMAR S.L.	96-EKA-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	800.000 800.000
PROCESO DE PLASTICOS INTEGRADO SA	96-ABU-01	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.680.000 1.680.000
PROCESOS LASER AUXILIARES DE NAVARRA S.L	96-ABU-26 96-ABU-27	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA) KALITATE SISTEMA EZARTZEA	510.000 680.000 1.190.000
PRODUCTOS KOL S.L.(SANGÜESA)	96-EKA-28	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	700.000 700.000
PSI-TELECOMUNICATIONS S.A.	96-ABU-28	ORDENADOREZ LAGUNDUTAKO EKOIZPENA KUDEATZEKO SISTEMAK EZARTZEA	492.750 492.750
REVESTIMIENTOS ESP. MOLDEADOS SA	96-MAI-06 96-MAI-07	PRODUKTUA EGIATZATZEA, ECE R-90REN ARABERA PRODUKTUA EGIATZATZEA, ECE R-90REN ARABERA	2.287.442 457.803 2.745.245

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
S.C.L. RIBERAL	96-ABU-30	DANTZA MARKAKO TOMATEAREN KATALOGO DISEINUA	124.218
	96-ABU-30	BELTORO MARKA BERRIRO DISEINATZEA	168.750
			<u>292.968</u>
SAGARTE S.A.	96-ABU-30	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	333.750
	96-ABU-30	EKOIZPEN LERROAK ANTOLATZEKO ARLOKO AHOLKULARITZA	381.250
	96-ABU-30	EKOIZPENA HOBETZEKO DIAGNOSTIKOA ETA PROPOSAMENAK EGITEKO AHOLKULARITZA	247.500
			<u>962.500</u>
SAIZAR S.A.L.	96-ABU-30	AD-MERKBLAT TW0/TRD 100 ARAUTEGIAREN ARABERAKO HOMOLOGAZIOA	210.508
			<u>210.508</u>
SAKANA S. COOP.	96-ABU-02	EKOIZPENA KUDEATZEKO SISTEMA INFORMATIKOA EZARTZEA	500.000
			<u>500.000</u>
SALVAPLAS RIOJA S.L.	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	445.000
			<u>445.000</u>
SAPROGAL S.A.	96-EKA-28	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	520.000
			<u>520.000</u>
SCHADE AUTOMOCION, S.A.	96-ABU-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	625.000
			<u>625.000</u>
SEGURIDAD INDUSTRIAL SA	96-ABU-02	KALITATE SISTEMA EZARTZEA-AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	226.800
			<u>226.800</u>
SEGURIDAD Y FERRETERIA S.L. (SEFER)	96-UZT-26	PRODUKTU DISEINUA	157.000
	96-UZT-26	IRUDI DISEINUA	274.500
			<u>431.500</u>
SERIGRAFIA REDIN S.A.	96-EKA-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	710.000
			<u>710.000</u>
SEROPA S.L.	96-MAI-24	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	416.189
			<u>416.189</u>
SIC LAZARO SL	96-EKA-20	KOSTUEN AZTERKETA	112.500
	96-UZT-17	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.065.000
			<u>1.177.500</u>
SILENCIOSOS FALCES, S.A.	96-UZT-31	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	362.000
			<u>362.000</u>
SINASE ALFONSO S.A.	96-ABU-29	LAN OSASUN ARLOKO AHOLKULARITZA (31/95 LEGEA, LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEARI BURUZKOA)	731.250
	96-ABU-29	BILTEGI ATALA HANDITU ETA HOBETZEAGATIKO AHOLKULARITZA ANTOLAKETA ARLOAN	975.000
			<u>1.706.250</u>
SISTELEC ELECTRONICA SL	96-MAI-07	MERKATARITZA ANTOLAKETARI BURUZKO AZTERKETA	1.260.000
			<u>1.260.000</u>
SKF ESPAÑOLA S.A.	96-ABU-28	KALITATEA ZIURTATZEKO DOKUMENTAZIOA KONTROLATZEKO SOFTWAREA	70.000
	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA.AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	621.875
			<u>691.875</u>

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
SOLES SYSTEM SA	96-ABU-30	IRUDI KORPORATIBO BERRIAREN PROIEKTUA	750.000 <u>750.000</u>
SUPERFOS EMBALAJES INPLAVI S.A.	96-EKA-03 96-EKA-03 96-EKA-03	INFORMATIKA, DIAGNOSTIKOA INFORMATIKA, AHOLKULARITZA AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA	69.500 200.000 500.000 <u>769.500</u>
TABLEROS GARFER S.A.	96-ABU-30	JARDUERAREN ANTOLAKETA	838.750 <u>838.750</u>
TALLERES ATONDOA S.L.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	600.000 <u>600.000</u>
TALLERES ESGUI S.L.	96-EKA-12	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	2.312.400 <u>2.312.400</u>
TALLERES EZMA, S.A.	96-ABU-30	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.008.000 <u>1.008.000</u>
TALLERES ROIRI, S.L.	96-EKA-19	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	750.000 <u>750.000</u>
TECAL, 40, S.L.	96-ABU-30	IRUDI KORPORATIBOA SORTZEA	687.500 <u>687.500</u>
TECNOCONFORT SA	96-ABU-29	KOKAPENA ADIERAZTEKO SISTEMA, EBAKITZEKO MAHAIARENTZAKO	401.800 <u>401.800</u>
TEGUI ELECTRONICA SA	96-EKA-17	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.755.000 <u>1.755.000</u>
TELEMECANICA S.A.	96-ABU-30	EKOIZPENA ETENGABE HOBETZEKO SISTEMA EZARTZEA	1.187.500 <u>1.187.500</u>
TERMoeLECTRICIDAD BEROTZA, S.L.	96-ABU-30	TENPERATURA KONTROLATUKO EDARI (ARDOA) ERAKUSLE HOZTUA	2.750.000 <u>2.750.000</u>
TRATAMIENTOS INDUSTRIALES IRUÑA SA	96-ABU-02	LAN TALDEAK BIZKORTZEA	150.000 <u>150.000</u>
TRW-DIRECCIONES DE VEHICULOS SA	96-UZT-05 96-ABU-06	AUDITORIA ENPRESA ERREGISTROA LEAN PRODUCTION EZARTZEA, SHINGIJUTSU EREDUAREN ARABERA	772.542 1.468.750 <u>2.241.292</u>
UCAR HERMANOS S.A.	96-ABU-30	ENPRESAREN ETA HAREN AUKEREN AURKEZPEN ELKARRERAGILEA	812.500 <u>812.500</u>
UNIBOLSA S.A.	96-EKA-07	EKOIZKORTASUNA HOBETZEA, TRESNERIA ALDATZEKO DENBORA MURRIZTUZ	1.082.500 <u>1.082.500</u>
UNICE SA	96-EKA-28	EKOIZPENAREN ANTOLAKETA	1.292.350 <u>1.292.350</u>
UNION DE INDUSTRIAS C.A. S.A.	96-EKA-14	HOBEKUNTZA INTEGRALA	1.210.000 <u>1.210.000</u>

ENPRESA	ESKARIA	JARDUKETA	DIRULAGUNTZA
UNION FABRICANTES ELECTRODOMESTICOS SA	96-EKA-26	P.A.E. 96 DISEINUA	987.945
	96-EKA-26	PRODUKTUAREN EGIAZTAPENA	150.000
	96-EKA-26	TERMOFLUIDO LERROA EZARTZEA	730.000
			<u>1.867.945</u>
UNION INDUSTRIAL MARMOLERA, S.L.	96-ABU-09	JARDUKETA ESTRATEGIA ETA PLANEN JARRAIPENA	675.000
			<u>675.000</u>
UVE S.A.	96-ABU-26	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	600.000
			<u>600.000</u>
VEGA MAYOR SA	96-ABU-09	POLT SARATZEAREN WORKSHOPA	672.672
			<u>672.672</u>
VEGOPLAS S.L.	96-EKA-27	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	1.700.000
			<u>1.700.000</u>
VIDECART SA	96-ABU-02	EKOIZKORTASUNA HOBETZEA EKOIZPEN ARLOETAN	1.925.000
			<u>1.925.000</u>
VINICOLA NAVARRA, S.A.	96-MAI-07	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	2.590.000
	96-ABU-28	CASTILLO DE JAVIER MARKAREN IRUDIA	327.375
			<u>2.917.375</u>
VISCOFAN SA	96-ABU-28	INTEGRAZIO ETA KOMUNIKAZIO AHOLKULARITZA. INFORMAZIO SISTEMAK IRUÑEA CASEDA	1.976.250
	96-ABU-28	EKOIZPEN ARLOKO INFORMAZIO SISTEMA BERRIARI BURUZKO AHOLKULARITZA ETA EZARPENA	1.968.488
			<u>3.944.738</u>
VOLKSWAGEN NAVARRA, S.A.	96-UZT-29	EKO AUDITORIA	1.500.000
			<u>1.500.000</u>
WISCO ESPAÑOLA SA	96-ABU-08	SISTEMA INFORMATIKO INTEGRALA EZARTZEA	750.000
	96-ABU-08	LABAKO ERREGAIA ALDATZEA	956.250
			<u>1.706.250</u>
YOM INDUSTRIAL S.L.	96-ABU-02	KALITATE SISTEMA EZARTZEA	720.000
			<u>720.000</u>
			<u>254.305.827</u>
	BATURA, GUZTIRA:		

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko administrari lanpostu bat, euskaraz jakitea ezinbesteko duena, lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Onartuen zerrenda

Kontuen Ganbarako Lehendakariak hurrengo erabakia eman du, dataren egunean:

“1997ko apirilaren 29an, Nafarroako Kontuen Ganbararen zerbitzuko administrari lanpostu bat betetzeko lekualdatze-lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak, izangaien zerrenda igorri dio Lehendakariari honi, ateratako puntuazioaren arabera.

Aipatu lekualdatze-lehiaketa arautzen duen deialdiko 7.1 oinarriarekin bat,

ERABAKI DUT:

1.- Deialdi honetako epaimahai kalifikatzaileak igorri didan izangaien zerrenda, ateratako puntuazioaren arabera, onartzea. Erabaki honi erantsen zaio hori.

2.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Kontuen Ganbarako iragarki-oholean argitaratu dadin agintzea, eta baita Kontuen Ganbarako Langileen Batzarrari helaraztea ere.”

Iruñean, 1997ko apirilaren 30a

Lehendakaria: Fco. Javier Tuñón San Martín

Izangaien zerrenda,
puntuazioaren arabera

Izangaiaren izena	Ateratako puntuak
Mitxelena Enbil, M ^a Izaskun Amaia	3,94
Elizalde Elizalde, M ^a Julia	2,81



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 165 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--